

11.- SARITU GABEKO LANAK

Itzuli egingo dira, eta egileek edo horien ordezkariak jaso ahal izango dituzte, epaia ezagutzera eman osteko hiru asteetan. Horrela egin ezean apurto eta bota egingo dira.

Erakunde antolatzailea ez da arduratuko itzultzean galtzen diren lanek edota kopiez.

12.- LEGE BARRUTIA

Zarauzko Udalak saritutako lanak ustiatzeko eskubidea izango du, sariaren zenbatekoaz gain bestelako ordainketarik egin gabe, horixe izango baita ordainketa bakarra eta guztizkoa; beraz, egileek hitz ematen dute ondorengoetarako:

- a) Mugarik gabeko epean eta argitaratu zein komertzializatzeko erabiltzen den modua edozein dela ere, lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak Zarauzko Udalaren esku uzten dituztela.
- b) Udalak eskubidea du bere kabuz edo argitaratzeko zerbitzu publiko edo pribatuaren bitartez, beharrezko iruditzen zaizkion edizioak argitaratzeko; edizio bakoitzerako ale kopurua Udalak erabakiko du.

Arautegi honetan jasotzen ez den gorabeherarik sortzen bada, sariketara aurkezten diren idazleek auzi guztiekiko erabakia erakunde antolatzailearen esku utziko dute.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Zarauz, 2010eko azaroa

EBPN



ZARAUZKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA

XXIX.
Xabier
Lizardi
Saria

1.- SARIA

Zarauzko Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) barruan, XXIX. XABIER LIZARDI SARIA, Haur Ipuin Lehiaketa antolatu du. Haur eta gaztetxoentzako literatura suspertzea du helburu, eta 18 urtetik gorako egileei zuzenduta dago.

2.- BALDINTZAK

Sariketa honetan parte hartzeko, ondorengo baldintzak bete behar dituzte aurkeztutako ipuinek:

- Jatorriz euskaraz idatziak izatea.
- Lanak originalak, argitaragabeak eta beste inolako lehiaketetan saritu gabeak izatea.
- Gaia librea izango da.
- Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake.
- Lana aurkeztu ondoren, partaideak ezingo du bere lana jaso, ezta lehiaketari uko egin ere.

3.- AURKEZPENA

Lanak aurkeztean honako baldintzak bete beharko dira:

- Makinaz idatziak izatea, lerro artean tarte bikoitza utzita eta DIN A-4 neurriko orrietan.
- Lan bakoitzaren bi ale bidaltzea, ongi josiak, zenbakituak, koadernatu gabeak eta era soil batez tolestuak.
- Izengoitiz sinatuak izatea. Aparteko gutun-azal itxi baten barruan adieraziko dira: izengoitia, izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.
- Posta arruntez bidalitako lanak ziurtatutako gutunean bidali beharko dira.
- Xabier Lizardi Literatur Sarirako dela adieraztea komeni da.

4.- LANEN LUZERA

24.000 karaktere baino gutxiagoko lanik ez da onartuko.

5.- LANAK AURKEZTEKO EPEA

2011ko urtarrilaren 10a.

6.- LANAK NORA BIDALI

Zarauzko Udala – Euskara Zerbitzua – Etxezabala – Kale Nagusia 29, 20800 Zarautz (Tel. 943 005116 / e-posta: euskaraz@zarautz.org)

7.- EPAIMAHAIA

Epaimahaikideak honako idazleak izango dira: Jesus M^e Olaizola *Txiliku*, Miren Agur Meabe, Iñaki Friera eta Castillo Suarez (2009ko lehiaketako irabazlea). XXIX. deialdi honetako irabazleari hurrengo deialdiko epaimahaikide izatea eskatuko dio Udalak.

Zarauzko Udalak bere ordezkaria izango du epaimahaian eta idazkaria ere izendatuko du. Udal ordezkari hori izango da epaimahaiburua eta bera arduratuko da gaiak bideratzeaz; lan-teknikoari dagokionez, berriz, epaimahaikide adituek izango dute erabakitzeke ahalmena.

8.- EPAIA

Saria bakarra izango da, 3.700 eurokoa.

Sariaren diru kopuru honek indarrean dagoen legedian ezarritako atxikipena izango du.

Lanek behar adinako mailarik ez balute, saria eman gabe gera liteke.

Epaia 2011ko otsailean emango da jakitera.

9.- AIPAMENAK

Epaimahaiak egoki baderitzo, saria lan bakar bati eman arren, aipamen bat edo gehiago egin ditzake, beste zenbait lanen bikaintasuna adierazteko. Era berean, lan hori argitaratzeko aukera eman diezaioke egileari Udalak.

10.- SARI BANAKETA ETA LAN SARITUAREN

ARGITALPENA

Saritutako lana argitaratu egingo da.

Zarauzko Udalak 2.500 ale kaleratuko ditu, eta argitaletxeak, gainera, bere edizio propioa argitaratuko du.

Argitalpena sari banaketa egunean kaleratuko da, 2011ko apirilean, hain zuzen ere.